

## **OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2020KO URTARRILAREN 17AN ETA 20AN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Presidenteak deituta, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren egoitzan, 2020ko urtarrilaren 17an, 11:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai zerrenda:

### **DEITUAK**

#### **PRESIDENTEA**

Miren Nekane Murga Eizagahevarria andrea

#### **PRESIDENTEORDEA**

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

#### **KONTSEILUKIDEAK**

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna  
Hernando Lacalle Edeso jauna  
Fátima Ansotegui Elordi andrea

#### **IDAZKARIA**

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Era berean, Juan Luis Diego Casals jauna, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusia etorri da Kontseiluaren bilerara, presidenteak gonbidatuta.

### **GAI-ZERRENDA:**

#### **LEHENENGOA: Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako txostena.**

Administrazio Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 17rako aurreikusitako saioa 11:00etan hasi zen, eta 12:40an bertan behera utzi behar izan zen presidentearen agenda arazoak tarteko; 2020ko urtarrilaren 20an ekin zitzaion berriz ere, 10:00etan. Hortaz, saioa bi egun bereizitan egin arren, orain idazten den akta bakarra da.

- Urtarrilaren 17ko saioa, 11:00etan:

Gai zerrendan puntu bakarra dago: *Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako txostena*. Aipatutako txostenak Zuzendaritza Nagusiak eskatuta Zuzendaritza Ekonomiko Finantzarioak eraturako lantaldeak egin duen barne-analisia du hizpide, AUOrekin lotutako ustezko gertaerei buruzko informazioa lortze aldera; komunikabideei esker izan genuen gertaera horien berri.

Kontseiluko presidentek saio hau zergatik egin den azaldu du Kontseiluko kide guztien aurrean, eta ondoren zuzendari nagusiari eman dio hitza, Osakidetza Estatu-estatutuaren 11.a) artikuluan azaldutakoa dela bide, aipatutako lantaldeak prestatutako eta Kontseilu honen aurrean aurkeztutako txostenaren ondorioak azal ditzan; txostenaren egile guztiak Osakidetza plantillakoak dira.

Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako txostena prestatzeko lantaldeak Deloitte enpresa kontratatuaren kolaborazioa eta aholkularitza izan du. Adierazi duenez, orain aurkezten den txosten hau barne-mailakoa eta aurretiazkoa da.

Lantaldearen txosten honen lehen ondorio modura azaldu du honako ebidentzia hauek daudela AUOn material suntsikorrek kontsumitzeari dagokionez:

- AUOk erabiltzeko material suntsikorra jarri zuen, baina material hori enpresa adjudikaziodunak hornitu behar zuen.
- Kontratuen baldintzak zuzen egiaztatu ahal izateko behar den trazabilitatea mugatuta dago.

Bidenabar, azaldu duenez, ustezko irregulartasunaren kopuru zehatza ezin da eurotan kalkulatu, ez baitago trazabilitaterik kontratuan adierazitakoaren eta sistemako artikuluen kodeen artean, eta horrek esku artean daukagun informazioa distortsionatzen du.

Zuzendaritza Nagusiari eskaera egin zaio, deskribatutako gertaeren harira, eta txostenean horrelakorik ez dagoenez, erakundeko zerbitzu juridikoen prestatutako balorazio juridikoa aurkez dezan.

Kontseiluaren saioa bertan behera utzi da 12:40an, presidentearen agenda gaiak direla medio. Hurrengo astelehenean berrekingo zaio, urtarrilaren 20an, 10:00etan.

- Urtarrilaren 20ko saioa, 10:00etan:

Presidenteak Deloitte enpresa gonbidatu du Kontseiluak urtarrilaren 20an egindako saiora, eta enpresak saioan bertan jakinarazi ditu *Hornitzaileekiko barne-kontrolerako operatiboaren diagnostikoa* lanean lortutako ondorio nagusiak; azaldu duenez, lantaldearekin batera egindako analisisan egiaz zaila da aurreikuspen kuantitatiboa egitea, baita ustezko irregulartasunen trazabilitatea hautematea ere.

Administrazio Kontseiluak aho batez adierazi du Justiziarekin kolaboratzea eta erabateko gardentasunez jokatzea gailendu behar direla, eta informazio osoena eman ahal izateko lanean jarraituko duela nabarmendu du, egindako azterlanaren ondorio nagusiak idatziz, ustezko gertakizunen egiara ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Bestalde, Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu juridikoek kontseiluaren urtarrilaren 17ko bilkuran erabaki zenaren ondotik egin duten txosten aurkeztu du. Administrazio-kontseiluak azalpenak emateko eskatu ditu txosten juridiko horren gainean. Txosten hori administrazio-kontseiluaren hurrengo bilkuran aurkeztu beharko da (urtarrilaren 24an, 11:30ean).

Administrazio Kontseiluaren beste saio bat deitzea adostu da, hain zuzen ere, hurrengo ostiralerako, urtarrilaren 24a, 11:30ean.

## 2. Galde-eskeak:

Ez da inolako galdera edo eskaerarik egin.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera 14:30ean amaitu da

**Sin.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA  
IDAZKARIA**

**Sin.: MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA  
PRESIDENTEA**

